

3 BIZKAIA

El Chorretón ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Calera ibaiak kontserbazio egoera du: uraren kalitate bikaina eta ibar baso naturala. Zuhaitz mota ugari izango ditugu ikusgai: Haltzak (*Alnus glutinosa*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*) eta zuhaixka ugari, hala nola sahatsak (*Salix spp.*) eta hurritzak (*Corylus avellana*). Ibilbidean, halaber, sarri ikusiko

ditugu iratzeak, batzuk benetan bikainak. Hegaztien artean ugariak dira fringilidoak: txirriskila arrunta (*Serinus serinus*), txorruak (*Carduelis choloris*), txontak (*Fringilia coelebs*) eta karnabak (*Carduelis carduelis*) kantari bikainak. Airean hegan, eguneko harrapari ederrak ikus daitezke: sai zuria (*Neophron*

percnopterus), zapelatz arrunta (*Buteo buteo*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*). Bestelako espezieak ere ez dira urriak, hala nola arrabioa (*Salamandra salamandra*) eta muskerrak eta sugandilak (*Podarcis hispanica*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,3 km

🕒 30 min | 🚶



Udalerria:
Karrantza Harana
Hurbileko herria:
La Calera del Prado



Ibaia:
Calera



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



↑ 543 m ↗ 88 m

↓ 473 m ↘ 23 m





EL CHORRETÓN
UR-JAUIA

El Chorretón ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

"El Chorretón" ur-jauzia Bizkaiko Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko mutur-muturrean dago, Ordunte mendilerroaren iparraldeko isurialdean, Enkarterri eskualdeko Karrantza udalerriko La Calera del Prado inguruan. Lanestosatik N-629 errepidea hartu behar dugu La Calera del Pradorantz. Lehenago, Valneratik (hiru kilometro) pasatu behar dugu, eta azkenean, zazpi bat kilometro eginda, La Calerara helduko gara: Ibaiaren eskuinaldeko azken herritxora. La Calera del Pradoko etxeak zeharkatu eta behitegi eta berriztutako baseliza bat aurkituko ditugu. Bertatik hasten da ibilbidea. Handik, ezkerreko pista hartu, eta zortziehun bat metro eginda, eta abeltegi batera helduko gara. Ondoren, eskuineko bidexka hartuta, iratze artean, bidebanatzean eskuinetara hartuta, Calera ibaiko El Chorretón ur-jauzira eta osinera iritsiko gara. Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina euri sasoiak ikusgarriagoa da ur-jauzia.



Deskargatu ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide guztiak hemen:



Wikiloc

El Chorretón ur-jauzia



El Chorretón ur-jauzia

